GORLIZKO IKASTETXEAN EUSKARA INDARTZEKO SAIOEI DAGOKIEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK

1.-KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren xedea izango da Gorlizko ikastetxean Euskara Indartzeko Saioei dagokien zerbitzua kontratatzea 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan. Hona hemen, zehazki, zerbitzuaren nondik norakoak:

Euskaraz mintzatzeko eta euskara ulertzeko zailtasunak dituzten Gorlizko eskolako 6-12 urte bitarteko ikasleei zuzenduko zaie ekintza, euskaraz aritzeko zailtasunak murrizte aldera eta euskaraz idazteko eta mintzatzeko gaitasuna indartze aldera.

1 Egutegia eta ordutegiak

Ekintza honen egutegia ikastetxeetako egutegi ofizialaren araberakoa izango da. Hala ere, euskara indartzeko saioen hasiera eta amaiera ez dira bat etorriko eskola-egutegiarekin. Ikasturteko saioak 2023-24ko ikasturtean ahalik eta lehen bait-lehen hasi eta 2024ko eta 2025eko maiatzean amaituko dira.

Euskara indartzeko saioen egitarau eta ordutegiak ondorengoak izango dira: astelehen eta ostegunetan arratsaldeko 16:00etatik 17:20ak arte.

2 Funtzionamendua

Euskara indartzeko saioetan parte hartzeko plaza-kopurua mugatua eta itxia izango da. Hau da, ezin izango dute saioetan parte hartu interesa duten ikasle guztiek. 6-12 urteko adin-tarteari dagozkien mailetako tutoreek euskara indartzeko saio hauen beharra duten ikasleen zerrenda osatuko dute eta zerrenda honetan dauden ikasleek baino ezin izango dute esku hartu.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Zerrenda horretan oinarritutako taldeetan banatuko dira ikasleak. Gehienez, 20 ikasle egongo dira; eta 2 talde sortuko dira. Hala ere, zenbait dinamika elkarrekin egiteko aukera egon daiteke.

Ikastetxearen eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren egitekoa izango da izen-emateak kudeatzea eta zerrendak osatzea, eta enpresa esleipendunari ematea.

Eskatzaileek ondorengo alderdiak garatuko dituen lan-programa aurkeztu beharko dute (zerbitzuaren helburuak, metodologia, programazioa, giza baliabideak, baliabide materialak, Udalarekiko koordinazioa eta zerbitzuaren ebaluazioa).

3 Zerbitzuaren helburuak

Aurretik esan bezala, zerbitzuaren helburu nagusia honakoa da: euskaraz mintzatzeko eta euskara ulertzeko zailtasunak dituzten Gorlizko ikastetxeko 6-12 urte bitarteko ikasleei euskaraz aritzeko zailtasunak murrizteko eta euskaraz idazteko eta mintzatzeko gaitasuna indartzeko laguntza eskaintzea.

Hala ere, helburu zehatz hauek ere aipa ditzakegu:

- Haurrekin euskara modu arin eta gozagarrian lantzea.
- Euskararen motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzea.
- Euskal mundua, euskal kultura eta euskarak eskaintzen dituen baliabideak ezagutaraztea.
- Euskara landuz gozatzea.

4 Metodologia

Metodologia dinamiko eta parte hartzailea izango da. Hartzaileen adin tartera egokitzen diren ekintza erakargarriak bilatuko dira, eskolaz kanpo ere, euskara modu gozagarrian ikasteko helburuarekin.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Talde lana sustatuko da.

Konfiantza giroan eta presiorik gabe, euskara eta euskal mundua ezagutzea izango da helburua.

Haurrak hitz egitera animatzea da dinamizatzailearen lana, hau da, presiorik gabe euskaraz parte hartzera animatzea.

5 Programazioa

Euskara indartzeko saioen programazioa diseinatzerako orduan kontuan hartu beharko dira zerbitzuak dituen berariazko helburuak.

Ikasturte osorako programazioaren diseinua enpresa esleipendunaren betebeharra izango da. Hala ere, programazioa garatzerako orduan, enpresa esleipendunaren eta ikastetxeko euskara indartzeko saioen arduradunaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Hau da, euskara indartzeko saioetan jarraituko den programazioa ikastetxean lantzen dutenaren osagarria izango da, alderdi ludiko batetik landuko bada ere. Horretarako, hiru koordinaziobatzar egongo dira ikasturtean zehar: hasieran (programazioa zehazteko), ikasturtearen erdian (egon daitezkeen gabeziak zein hutsuneak zuzentzeko eta ikasleen garapena baloratzeko) eta amaieran (balorazio-batzarra).

Programazioan zehaztutako edukiak, betiere, modu ludiko/didaktiko batean landuko dira: hiztegia lantzeko dinamikak, komunikazioa eta ahozkotasuna lantzeko ariketak, zenbait gai lantzeko jolasak (esamoldeak, zenbakiak, egiturak, aditzak…), euskaraz gozatzeko zenbait ekintza (jolasak, filmak, eskulanak, teknologia berriak…), euskal kultura lantzeko ginkanak, kulturartekotasuna (jolasak, errezetak, argazkiak …), antzerkia, txangotxoak, euskal jai eta ohiturak, filmak, eskulanak, jolasak eta abestiak, jolasak hizkuntzarekin eta abar.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

6 Giza baliabideak

Lehenago esan bezala, gehienez 20 ikasle egongo dira, 2 taldetan bereizita. Talde bakoitzaren ardura hezitzaile/dinamizatzaile batek hartuko du. Hezitzaile/dinamizatzaileez gain, Gorlizko Euskara Indartzeko Saioen egitasmo osoa koordinatuko duen arduraduna ere beharrezkoa izango da.

Baloratuko da lan-taldea gizon eta emakumeez osatuta egotea, ikasleek emakume eta gizonen arteko identifikazio positiboan oinarritutako harremanak era ditzaten.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan eta bai ikasleekiko harremanetan.

Lan-taldearen profila ondorengoa izango da:

Koordinatzailea

- Aisialdiko Zuzendaria, edo Gizarte Zientzietan zein Hezkuntza Zientzietan ikasketak dituena.
- EGA titulua edo baliokidea.
- Eskarmentua aisialdi-esparruan.

Hezitzaile/dinamizatzailea

- Begirale titulua.
- EGA titulua edo baliokidea.
- Eskarmentua aisialdi-esparruan.

Zerbitzua garatuko duten langileen zereginak ondorengoak izango dira:

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Dinamizazio-eginkizunak:

- Ikasleen euskararen komunikazio eta ulermena hobetzera bideratutako programa gauzatzea, modu ludiko eta didaktiko batez.
- Ikasturte osorako programazioan zehaztutako eguneroko ekintzak gauzatzea eta ekintza berriak proposatzea beharren arabera.
- Ekintzen eta ikasleen garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Euskara indartzeko saioak eskaintzeko ikastetxeak utzitako espazioa zaintzea eta ekintzari hasiera eman aurretik aurkitu bezala mantentzea.
- Eguneroko beharren jakinaren gainean egotea (beharrezko materiala, azpiegiturak …).
- Gurasoekin harreman zuzenak izatea, bere seme-alaben garapenari buruz izan dezaketen zalantzak argitzeko asmoz.
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, koordinaziozereginak burutuko dituen pertsonarekin batera.

Koordinazio-eginkizunak:

- Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak emango dion ikasle-zerrendan oinarrituz taldeak sortzea.
- Ikasturte osoko programazioa zehaztea.
- Euskara teknikariekin eta ikastetxeko arduradunekin batzartzea: taldeak eta programazioa sortzeko, ekintzaren jarraipena egiteko, egin beharreko balorazioak egiteko …
- Koordinazioa Euskara Zerbitzuarekin eta ikastetxearekin.
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, hezitzaile/dinamizatzaileekin batera.
- Jarraipen-txostenak idaztea aldian-aldian, ekintzaren egoeraren berri emanez.

Lan-taldearen lan-ordutegia honakoa izango da:

Hezitzaile/dinamizatzaileak:

Asteko lanaldia gutxienez 3 ordukoa izango da, hezitzaile/dinamizatzaileak gidatzen duen talde bakoitzeko. Hau da, hezitzaile/dinamizatzaileak talde bat baino gehiagoren

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

ardura izango balu, orduak biderkatuko lirateke. Ordu hauei gehitu beharko litzaieke antolaketa eta koordinazio-lanetan emandako denbora.

Koordinatzailea:

Koordinatzaileak kudeatu beharko du bere denbora koordinaziozereginak aurrera eramateko. Gorlizko Udalak ez du gutxieneko eta gehieneko ordurik finkatuko. Lan hau bere lanpostutik egin ahal izango du koordinatzaileak eta Gorlizko ikastetxera etorri behar izango du antolaketa eta koordinazio batzarretan parte hartzeko bakarrik.

26/2015 Legeak aldatzen duen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, adjudikaziodunak adingabeekin lan egingo duten langile guztien Sexu-deliturik egin ez izana egiaztatzeko ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu.

7 Baliabide materialak

Baliabide materialei dagokienez, Gorlizko ikastetxeak utziko ditu ekintza garatzeko beharrezkoak diren oinarrizko hornikuntza eta altzariak.

Gorago aipatu bezala, hezitzaile/dinamizatzaileen zereginetako bat izango da lagatako instalazioak eta materialak egoera egokian mantentzea eta horretarako beharrezkoak diren neurriak ezartzea. Kalteren bat gertatuz gero instalazio zein materialetan, ikastetxeko arduradunari honen berri eman beharko zaio ahalik eta lasterren.

Enpresa esleipendunak eman beharko dio hezitzaile/dinamizatzaile bakoitzari beharrezko material didaktikoa. Horrez gain, programazioa garatzeko beharrezkoa den materiala eduki beharko du.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

8 Udalarekiko koordinazioa

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikaria izango da Udalaren, ikastetxearen eta enpresa esleipendunaren arteko koordinazioaz arduratuko dena. Koordinazio honek bermatu beharko du finkatutako helburuak betetzea.

9 Zerbitzuaren ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak ondorengo txostenak aurkeztu beharko dizkio Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariari:

- Hiru hilez behingo ebaluazio-txostena. Honetan jasoko dira asistentzia-datuak, ekintzen ebaluazioa eta hobekuntza-proposamenak.
- Ikasturte amaierako oroitidazkia.

Udalak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak. Horrez gain, egiaztatu ahal izango du enpresa esleipendunak betetzen dituela Baldintza agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

2.-KONTRATUAREN-ZENBATEKOA

Kontratuaren prezioa, gehienez, 15.414,30 eurokoa izango da. Kopuru hau beherantz hobetu ahal izango du enpresa eskatzaileak. Prezio horren barnean kontzeptu guztiak daude: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, enpresa-etekina, gastu orokorrak, etab

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus